ARRASATE ESKOLARA

HERRI CURRICULUMA

ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
HEZKUNTZA SAILA

KA 164.000
LEZETXIKI

Aranzadi elkarteak hiru hartzen aztarnak katalogatu ditu Lezetxikin, KA 120.000 urtekoak, eta horiez gain, gizakia noizbehinka agertu izana bertan, kobazuloan ez zegoenean animalia basatirik, tresnak agertu dira eta. Kobazulo horretan Jose Migel Barandiaranek emakume baten besondoa aurkitu zuen, bertan indusketa lanak egiten zebilela 1956tik 1968ra. Euskal Herrian ezagutzen den giza aztarnarik zaharrena da, 164.000 urte inguru duena.

1955
BESAIDE

1953an Mont Blanc mendian bost mendizale hil zirela-eta Euskal Mendizale Federazioak, 1954an, erabaki zuen eraikin bat egitea Besaiden (Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko probintziak elkartzen diren puntu geografikoa), mendian hildako mendizaleen oroimenez. Monumentuak 510,86 euroko kostua izan zuen. Inauguratu zen 1955eko urriaren 30ean, eta harrez gero, urtero irailaren hirugarren asteko domekan, Euskal Herrian mendian hildako mendizaleen oroimen eguna antolatzen da.

KA 1000/1937
MURUGAIN:
Burdin aroko herrixka eta 1936ko gerran gotorlekua

Burdin Aroa (-ka 3000-ka 900): gaur egun ezagutzen dugun Murugain mendian herrixka bat zegoen, Burdin Arokoa.

Hainbat arkeologok indusketa lanak egin zituzten 2011n, Burdin Aroko herrixka baten aztarnak aurkitzeko 1936ko gerran egindako lubakien inguruan. Gerra hartan, Dragoien batalloiko gudariak Murugain mendiko lubakietan ibili ziren Frankoren armadako tropen kontra borrokatzen 1936ko azarotik 1937ko apiril artean.

1897
CANOVASEN HERIOTZA

1897ko abuztuaren 8an, Angiolillo anarkistak Antonio Canovas del Castillo Espainiako gobernuburua hil zuen Santa Agedako bainuetxean. Handik gutxira, bainuetxea hasi zen bere izen ona galtzen, eta urtarrilean bertan "El Iris" eta "La Rosa" merkataritza sozietateek erosi zuten. Beharrezko berrikuntza lanak egin eta gero, 1898ko ekainean berriro ere ateak zabaldu zituen, osasun etxe bihurtuta.

Bainuetxeko eraikuntzek, gaur egun, ospitale psikiatrikoa osatzen dute, Aita Meni ospitalea (emakumeentzat) eta San Juan de Dios ospitalea (gizonezkoentzat).

1353
ARRASATE OSATZEN

1353an Ugaran bailarako Gesalibar, Garagartza, Udala, Uribarri eta Erenuzketa, Isasigaña eta Oleaga Arrasateko herrian, "kontzejuan", sartu ziren, auzotartasun kontratu baten bidez.

Auzotartasun kontratu hori San Juan Bataiatzailearen parrokian sinatu zen 1353ko otsailaren 17an Arrasateko alkatearen aurrean, elkarrekin bilduta kontzeju erara.

Ugaran bailara da Gesalibartik Uribarri auzoraino doana, Aramaio errekak egiten duena.

XVI.MENDEA
IGOKUNDEAREN ERMITA

*Udalatx mendiaren gailurrean Igokundearen ermita bat zegoen, eta Garibaik jaso zuen eremuturrak nahiz letretako pertsonak bizi zirela bertan antzinatik. XVI. eta XVII. mendeetan, dokumentuetan agertzen da zerbitzu batzuk ematen zirela, baina 1733. urtean, Udala auzoko liburu batean agertzen da komeni zela itxita egotea; osterantzean eskumikua.

1771n Gipuzkoako Batzar Nagusiek agindu zuten hura ixteko. 1925ean Juan Carlos Guerra arrasatearrak kanpaina bat antolatu zuen ermita berreraikitzeko, baina ez zuen lortu. Gaur egun aurri egoeran dago, mendi tontor bien oinarrian.

1500
BASERRIAREN SORRERA

Lehen baserriak eraiki ziren XVI. mendearen hasieran. Baserri eraikitzaileek osotasun bat bilatzen zuten: eraikinak bete behar zituen ere behar familiarrak, ekonomikoak, sozialak, kulturalak eta espiritualak.

Adituek diote eraikitako lehen baserriak arkitektonikoki ondoen eraikitakoak eta funtzionalenak zirela. Garai hartako eraikuntzari buruz zegoen jakituria guztia erabili zuten baserriak eraikitzeko. Profesionalek egin zituzten, arkitektoen aurrekoak, aurrez katedralak eraikitzen ibili zirenak: harginak, zurginak eta maisuak.



1468
IBARRETAKO HILKETA

Gaur egun, Garbigunearen sarreraren ezkerreko aldean, gurutze bi daude, bertan gertaturiko hilketa baten lekuko. Gertaera hura hartu zen 1448ko Arrasateko erreketaren mendekutzat. Martin Bañez Artazubiagakoa eta Juan Ibanez Barrutikoa ganboarrak Ibarretan zeukaten burdinolara joan eta, noiz irtengo zain, Aramaioko bost oñaztarrek hil zituzten. Haien oroimenez, hil tokian jarri zituzten: gurutze bi eta Antsa Ozaetakoak egindako eresiaren testuak.

1969
AUZO LAGUNEN SORRERA

1960ko hamarkadan onartuta zegoen emakumeek lanean jardutea, baina ezkondu eta lan jarduera bertan behera utzi behar izaten zuten, seme-alabak zaintzeko.

Garai hartan 17 emakumek erabaki zuten borrokatzea ezkondutakoan lan egiten jarraitzeko eta independentzia ekonomikoa lortzeko. Horrela sortu zuten Auzo Lagun 1969ko martxoaren 6an. Lehen zerbitzua izan zen udako sukaldaritzako zerbitzua ematea Zentroaren terrazan (orain Jose Letona plaza).

1975ean onartu zen bertan behera utzea emakumeak senarraren baimena behar izatea lan egiteko.

1979az geroztik Auzo Lagun Uribarri auzoan dago.

XIII.MENDEA
MEATEGIAK / SAN BALERIO KOFRADIA

Arrasateko meatzeetako mearen kalitatearen ondorioz, XIII. mendetik aurrera Arrasateko herritarren jardun nagusia izan zen altzairugintza. Burdina lantzeko ezagutza antzinatik zegoen zabalduta, eta antzinatik izan zen garrantzi handiko industria Arrasaterentzat.

Garai hartan esaten zuten Milango altzairua baino hobea zela, eta munduan ezaguna zen esaldi hau:

"Vencedora espada de Mondragon tu acero y en Toledo templada"

Udalatzeko maldetan langileek minerala ateratzen zuten aitzurrez, pikoez edo beste erreminta batzuez. Indusketak, jeneralean, azalekoak ziren, eta oso gutxitan ibiltzen ziren lurpeko galerietan. Emakumeak parte hartze handia izan zuen langintza honetan; batzuk burdinolen jabeak ziren.

Benakeroen lana zen meategietatik mea ateratzea altzairua egiteko. Kolektibo indartsu baten partaideak ziren, eta zaindaria zen San Balerio. Kofradia bat sortu zuten 1434an; egoitza zuen San Balerio ermitan, eta iraun zuen 1958ko abenduaren 4ra arte.

1896
URA EKARTZEA

Herriguneko biztanleak uraz hornitzeko, udalak lehenengo aldiz Altamirako iturritik hartu zuen ura 1879. urtean.

Ura etxeetara ekartzeko lanak 1896an hasi ziren. Udalak ura ekarri zuen Meatzerrekatik, San Balerio iturburutik, eta horretarako, depositu erregulatzaile bat jarri zuen Goikobalun.

XX. mendean biztanleriak gora egin zuen, eta Goikobalun zegoen ur jarioari gehitu behar izan zizkion 1956an Aretxabaletako Urbaltzekoa eta, 1958an, Eskoriatzako Bolibar auzokoa.

Debagoienean uraren arazoa konpontzeko, Urkuluko urtegia egin zen 1979an, eta Urkuluko ura 1986an iritsi zen Arrasateko etxeetara.

KA 45.000
LABEKO KOBA

Gaur egun aztarnategia ez da existitzen. 1987an, Arrasateko saihesbideak Labeko Koba zegoen tokitik pasatu behar zuela-eta indusketa egin zen, proiektua exekutatzen hasi aurretik.

Epe bat eman zitzaien arkeologoei indusketa egiteko. Indusketa lana 1987ko irailean hasi zuten, eta 1988ko abenduan bukatu.

Egindako aztarnen azterketari esker jakin da duela 45.000 urteko Cromagnonak egon zirela Labeko Koban. Atera zituzten 130.000 hezur eta baita 30.000 harrizko tresna. Hienen, hartzen, oreinen eta errinozero iletsuaren zein gizakiaren kobazulo gisa definitu da.

1956/1957
KOOPERATIBA INDUSTRIALEN SORRERA

Union Cerrajerako bost langilek (Usatorre, Larrañaga, Gorroñogoitia, Ormaetxea eta Ortubai) Arizmendiarretaren ideiak oinarri hartuta ULGOR sortu zuten 1955ean Gasteizen, eta 1956an Arrasatera etorri ziren. Talleres Arrasate-Cooperativa industrial (TACI) sortu zen 1957an, lehen kooperatiba industriala.

Arrasaten kooperatiba mugimendua hasi zen garatzen 1956ko urteaz geroztik, eta gaur egun oso ezaguna da Euskal Herrian eta mundu osoan: Fagor, Lagun Aro, Euskadiko Kutxa, Ikerlan, Auzo Lagun. Halaber, Arrasateko San Jose Kooperatibak, Euskal Herriko beste 5 kooperatibarekin elkarturik, Eroski kooperatiba sortu zuen.

2013an 'Fagor etxetresna elektrikoak' kooperatibak porrot egin zuen; ateak itxi eta krisi handia sortu zuen herrian.

1923-1943-1945
ESKOLA UNITARIOA / ZERRAJERA

1923ko maiatzaren 15a: egun gogoangarria Musakola auzoarentzat, eskola unitarioa zabaldu zen eta.

Egun hartan, erabaki zen Musakola auzoko jaia maiatzaren 15ean ospatzea eta auzoko jaien zaindaria San Isidro izatea.

Union Cerrajerak 2.000 metro koadroko lantegia eraiki zuen Musakolan, eta urte batzuk geroago, 1943an, bere langileentzat etxebizitzak eraiki eta lehen hogeiren giltzak entregatu zituen. Geroago, 1945ean, San Isidro nekazariaren ermita eraiki zuen.

Eskola unitarioa ermitatik hurrean zegoen.

XIX/XX/XXI. MENDEAK
ETXEZARRETA "SAGASTIETXE BASERRIA"

Finkaren jabea zen Rafael Ariza Echezarreta; meategietako injinerua eta mediku homeopata izan zen. XX. mendearen hasieran baserria finka handi bihurtu zuen, berak egindako planoei jarraituz. Garai hartako abeltzaintzako, basogintzako eta hegaztigintzako berrikuntza aurreratuenak erabili zituen.

Halaber, baserriaren ingurua basoberritu zuen, eta bertako zuhaitzak landatzeaz gain, zuhaitz exotikoak landatu zituen, eta animalia exotiko batzuk ekarri ere bai.

Liburutegi handia eta ona zeukan, eta bertara hainbat intelektual etorri ohi zen, hala nola Gregorio Marañon, Pio Baroja...

Lehen baserriaren izena zen Sagastietxe, non sagardo aparta (ospe handikoa) egiten zen.

1906
UNION CERRAJERA

Union Cerrajeraren sorrera. "Vergarajauregi Resusta y Cia" eta "Cerrajera Guipuzkoana" enpresak batu eta Union Cerrajera enpresa sortu zen 1906an. Denbora luzean herriaren geroa markatu zuen, eta herriaren motor ekonomikoa eta soziala izan zen.

Arrasaten itzal handia utzi zuen. Tailerrak eduki zituen Arrasaten, Zaldibarren eta Musakola auzoan, eta Bergaran.

1.700 langile inguru eduki zuen. Desegin zen 1993an, eta 1995ean Arrasateko instalazioak langileenak izatera pasatu ziren.

1918-1967
VASCO-NAVARRO TRENA

"Vasco-Navarro trena" 1918ko otsailaren 15ean iritsi zen Arrasatera, eta 1919ko irailaren 3an Mekolaldera (Bergara). Trenak zerbitzua ematen jardun zuen 1967ko abenduaren 31 arte.

Hasieran aurreikusita zegoen Lizarra-Gasteiz-Durango linea (trenbidea) egitea, baina azkenean, arazo batzuk tarteko, trenbide estuko ibilbide bat izan zen, Lizarra-Gasteiz-Mekolalde ibilbidea.

Trenak aldaketa handia ekarri zion Arrasateko bizimoduari, herrira kanpotik langile asko etorri zelako bertako lantegietara. Gazteak trenez hurbiltzen ziren inguruko herrietako jaietara, Gasteiza, itsasertzera.

1966
BEDOÑAKO ANEXIOA

1966an, Foru Aldundiak erabaki zuen Bedoña auzoa Arrasate herriari atxikitzea. Ordu arte Aretxabaletakoa zen, baina 1959an Bedoñako auzotarrek, hainbat arrazoirengatik, Arrasateko Udalari eskatu zioten herrian sartzea, eta udalak diputazioa bidali zuen eskaera. Hona hemen eskaeraren arrazoietako batzuk:

- Baserri batzuetako lurrak Arrasaten zeuden, eskola berriaren zati handi bat ere bai.
- Auzoko bizilagun asko eta asko Arrasateko lantegietara joaten zen lan egiten.
- Bedoñako eskolan igesketak bukatutakoan, ikasle guztiak Arrasatera joaten ziren.
- Arrasatetik auzorako errepidea, egin berria, oso-osorik zen egina Arrasateko lursailetan.

1933
LORAMENDI

Juan Arana Ezpeleta "Mendibitzu" baserrian jaio zen 1907an. Garai hartako poeta euskaldunik handienetakoa izan zen. Literatura lanetan "Loramendi" gaitzizena hartu zuen. Zorigaiztoko peritonitis erasoaldi batek jota, 26 urte bete zituen egunean bertan hil zen.

1935eko ekainean, "Euskaltzaleak" taldeak Bedoñara ekarri zuen "Olerti Eguna", eta gorazarrea egin zioten eta oroitarri bat jarri.

1959an, Bedoñan, "Euskararen adiskideak" elkarteak beste omenaldi bat egin zion. Bertan, olerki lehiaketan, Gabriel Aresti atera zen garaile "maldan behera" izeneko olerkiarekin.

2020-2021
COVID-19

COVID-19 birusaren eraginez mundu osoa murgilduta dago pandemia batean. Eragina moteltzeko, martxoan Estatuek etxeetan sartu gintuzten, berrogeialdian, alarma egoeran. Eskola etxeetatik bideratu zen, modu telematikoan, eta harremanak, kalearen erabilera, sentimenduak, jolasak… aldatu egin ziren gure bizitzetan. Urte bukaeran 2. olatua etorri zen, eta orain txertoaren zain gaude.

Pandemiak irakatsi digu bizitza "erdigunea" jarri behar dugula, oso garrantzitsuak direla osasun zerbitzuak, zaintza lanak, harremanak, eskola, jolasa, askatasuna, sentimenduak…, interes ekonomikoen gainetik, eta horretan konpromisoa hartu behar dugula gizarte berri bat sortzeko. Pandemiak munduan heriotza asko eragin du, baita Arrasaten ere. 2021ean, erronka hartuta mundu berri bat eraikitzeko, bizitzak jarraitu egiten du.

1199-1200
NAFARROAKO MENDEBALDEAREN KONKISTA

Gaztelak Nafarroako hainbat lurralde hartu zituen 1035ean, 1054an, eta 1177an Londresko laudoaren bidez. 1200. urtera arte Arrasate Nafarroako erresuman egon zen, baina Gasteizko setioaren ostean, Nafarroaren eskualde batzuk, gaur egungo Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia) Gaztelako Erresumak konkistatu zituen.

Garai hartan, gaur egungo Gipuzkoa ez zen existitzen eta haren lurraldean hiru entitate zeuden: "Aitzorrotzia", "Tierra de Ipuscaia" eta "San Sebastian". 1200dik aurrera Arrasate Gaztelaren menpean izan zen.

1260
GAZTELAKO HIRI GUTUNA

1260ko maiatzaren 15ean, Gaztelako erregeak hiri gutuna eman zion herriari, Arresate zen lekuari Mont(t)dragon izena jarri zion San Esteban de Eznatorafe (San Esteban del Puerto) herrian. Izan ere, hiri gutunak berresten zuen Nafarroako erregeak Gasteiz hiriari emandako forua. Hiri gutuna udaletxeko artxiboan dago gordeta.

1794/1833/1872
GERRA DIPUTAZIOA/ GERRA KARLISTAK

1794an frantsesek Gipuzkoa hartu zuten indarrez, eta inbasioa zela-eta Gerra Diputazioa eratu zen Arrasaten, lurraldea defendatzeko.

Lehenengo karlistada (1833-1839) 1833an hasi zen, karlisten eta liberalen artean, eta bukatu zen 1839ko abuztuaren 28an, Bergarako besarkada. 1841ean Espainiako gobernuak onartu zuen aduanak Ebrotik Bidasoara ekartzea.

Bigarren karlistadan (1872-1876) Santa Kruz apaiza karlisten bandoan aritu zen. Arrasate aldean harrapatu zuten eta Aramaiora preso eroan, baina ihes egitea lortu zuen.

1913
MONDRAGON FT

Arrasaten gizonezko lehendabiziko futbol ekipoa, "Club Deportivo Mondragon" izenarekin, 1913an sortu zen, eta futbol zelaia izan zuen Etxaluzen. Talde hura desagertuta, 1942an "Juventud Deportiva de Mondragón" taldea sortu zen, eta 1966an Mondragon CF bihurtu zen.

Mondragon futbol taldeak lehen emakume ekipoa sortu zuen 1986an Arrasaten. Arizmendi ikastolak ere azken hamarkadan emakumezkoen ekipoak sortu zituen bailaran kategoria guztietan. 2017an Arizmendik, Aretxabaletako UDAk eta Mondra CFk bat egin zuten, eta sortu zuten Leintz Arizmendi futbol ekipoa bailaran.

1936
1936KO GERRA

Nafarroan eta, gero Estatu osoan, Espainiako armadako Franko jenerala armetan altxatu zen Errepublikaren legalitatearen kontra, eta 1936ko gerra sortu zen.

1936ko gerrak Euskal Herrian eta Arrasaten ondorio latzak izan zituen herriko bizitzan eta herritar guztiengan: batailoiak osatzea, borrokak, ebakuazioak, fusilamenduak, presoak, erbesteratuak, debekuak, zigor ekonomikoak eta gosea. Garai gogorrak izan ziren herrirentzat. Atal honen buruan dator marrazki bat, Debagoieneko fusilatuen oroimenez egindako oroitarria.

1975/1976/1977
ARATUZTEAK/SANTAMASAK/ MARITXU KAJOI

Aratuzteak / Santamasak / Maritxu kajoi. Frankismo aroa bukatu aurretik, elkartegintza borborka zegoen herrian, eta kultura elkarteak, elkarte gastronomikoak eta jai batzordeak sortu ziren. Frankismoak debekatutako Aratuzteak hasi ziren errekuperatzen 1975ean. Galdutako Santamas jaiak herriko hainbat kultura talde, koadrila eta pertsonez osatutako komisiñuak berreskuratu zituen 1976an. Neguko solstizioarekin loturiko feria hori antzinatik ospatzen zen, meategien itzalean. Meatzerreka auzoan sortu zen "ofizialki" 1351n. Herriko koadrila batzuk Maritxu Kajoi jaia sortu zuten 1977an, txikiteroen zaindari hartuta.

Arrasateko jai nagusiak: Sanjuanak.

1987/1991/2003
GAZTETXEA

Gaztetxea sortu zen 1987an, Arrasateko Gazte Asanbladak (AGA) Gurea zinema zena okupatu zuenean. Gaztetxearen sorrera: 1991n ospitale zaharrean, hor jaio baitzen AGAKO (Arrasateko Gazteen Alternatiben Kofradia Organizatua).

Udalarekin adostuta ospitale zaharretik irten zuen, eta gaur egun, 2003tik aurrera, Gaztetxea dago Uarkape frontoiaren atzealdean.

1918-1960-2021
MIGRANTEEN ETORRERA HERRIAREN HAZKUNDEA

Euskal Herria herri migratzailea izan da betitik.

Azken 100 urteotan migratzaileen etorrera izan du 3 boladatan:

a) Trenarekin batera (1918an) herrira lan egitera etorri ziren Nafarroatik, Arabatik, Erriokatik eta Burgostik.

b) XX. Mendeko 50eko eta 60ko hamarkadetan izandako industrializazioaren garapenak langile gehiagoren beharra sortu zuen. Espainia aldetik jende asko etorri zen, eta biztanle kopurua handitu. Arrasate, 1986an, 26.681 biztanle izatera iritsi zen.

c) (2001-2008/2009-2021) XXI. mendean). XXI. Mendearen hasieran, estatuz kanpoko migratzaile asko etorri zen Euskal Herrira. Gaur egun, euskara eta gaztelaniaz gain, beste hizkuntza asko entzuten dugu gure kaleetan. Gaur egun, Arrasatek 22.000 biztanle inguru dauka.

2018
MARTXOAREN 8A

Emakume langilearen nazioarteko eguna da.

Egun horretan, mugimendu feministek agerian utzi gura izan zuten emakume barik herrialdeak geldituko egingo liratekeela. Egunak, berez, helburu gehiago du: indarkeria matxista eta sistema patriarkala salatzea, pairatu behar dituzten 'zamak' ikusaraztea eta alternatiba feminista bat eraikitzea.

Egun horretan, mundu osoan, greba deitu zuten lau esparrutan eragiteko: enpleguan, hezkuntzan, pertsonen zainketan eta kontsumoan.

"Bizirik egon gura dugu" leloaz, protesta egin zuten mundu osoan, eta erantzun ikaragarria izan zuen. Arrasaten ere erantzuna historikoa izan zen, mugarri erabakigarria emakumearen ahalduntzearen bidean.

9017 -1457
GAZTELUA

Hainbat historiagilek diote Antso "Abarka" Iruñeko erregeak erabaki zuela orduko Arrasate herrixka harresiz babestea. Halaber, Esteban Garibaikoa historiagilleak jaso zuen Goikobaluko gaztelua eraikitzeko agindua aipatu errege nafarrak eman zuela, baina zoribarrez ez dago agindu horien idatzizko dokumentu historikorik.

Gazteluak funtzio bi zeukan: Arrasate babestea eta Iruñeko erresumaren mugak defendatzea.

Oraintsuko Nafarroako historiagileek aipatzen dute Atxorrotz (Eskoriatzakoa), Goikobalu (Arrasatekoa) eta Elosuko (Bergara) gazteluak Nafarroako erresumaren defentsakoak zirela

Enrike IV. erregeak 1457an agindu zuen gaztelua botatzea.

1448
ARRASATEKO ERREKETA

Ekintza gertatu zen 1448ko ekainaren 23an Guraia (oñaztarrak) eta Bañez (ganboarrak) leinuen arteko borroketan.

Gertaeraren hasiera 1448ko ekainaren 11n izan zen, guraiatarrek deituta, Gomez Gonzalez Butroekoa, bere gizonekin Arrasaten azaldu zen eta hiribilduan kokatu. Bañeztarrek abisua helarazi zioten Oñatiko Pedro Belez Gebarakoari. Hark, bere bandoko aliatuen indarrak bilduta, bere soldaduekin iritsi zen Arrasatera, eta hiribildua inguratu zuten.

Setioan barrukoak ez zirenez errenditzen, ganboarrak San Kristobalgo baselizan bilduta, 1448ko ekainaren 23an, hiribildua erretzea erabaki zuten.

1902
BITERI ESKOLAK

Biteri eskolek, 1902an, Pedro Viteri Aranak bultzatuta, laikoak eta doakoak zirenak, Arrasaten hasi zuten bere ibilbidea. Gipuzkoan beste bederatzi herrietan ere ikastetxe bana eraiki zuen. Biteri eskoletako irakasle bik, Felix Arano eta Teresa Garcia, oso lan berritzailea egin zuten, irakaskuntza metodologia berezia erabili zuten eta.

Pedro Viterik eskolak eraikitzeko kostua bere gain hartzeaz gain, fundazio bat sustatu zuen, garai hartako 200.000 pezeta maisu-maistrei ordaintzeko.

1932/1967
IKASTOLAK

Errepublika garaian kristau sustraiko ikastola bat sortu zen herrian 1932an, eskola euskaraz ematen zen eta. Irakasle aritu ziren: Mendizabal, Zaitegi eta Etxeberria; eta horiekin batera, Jose Markiegi abadea, Leandro Guridi abadea. Abade bi horiek 1936an fusilatu zituen ejertzito frankistak Oiartzunen.

1967an herri ekimenak San Frantzisko Xabier ikastola sortu zuen. Frankismoaren garaian egonik, juridikoki Parrokia Eskola bat moduan eratu zen, eta geroago, udalak patronatu bat eratu zuen ikastolaren kudeaketa eramateko. 1973an San Frantzisko Xabier ikastola eratu zen, kooperatiba moduan.

1943
ESKOLA PROFESIONALA

Eskola Profesionalaren sorrera. 1941ean Jose Maria Arizmendiarrieta Arrasatera iritsi eta gero, 1943an, herriko enpresa batzuen laguntzarekin, Lanbide Eskola bat sortu zuen. Lehen egoitza egon zen Biteri fundazioaren eskoletan. Hogei ikaslerekin zabaldu zen, eta lehen ikaslea izan zen Domingo Agirre.

Esperientzia kooperatibistaren garapenean, lehen oinarria izan zen, eta hasieran lotura handia izan zuen 'Juventud Deportiva'rekin, Jose Maria Arizmendiarreta elkarte hartako kidea zen eta.

1983/1994/1995
AED, TXATXILIPURDI/EKIN

AED elkartea 1983an sortu zen. Euskal Herriko lehen euskara elkartea da. Lan jarduera: kultura, literatura lehiaketa, sentsibilizazio arloa, zahar berri proiektua, TTak gazte taldea.

Txabolipurdi elkartea 1994an sortu zen, haurrek eta gazteek euskaraz bizitzeko. Ludotketetan, gaztetxokoetan, Txikilandian… dihardu. Guraso.eus webgunea kudeatzen du eta "Oinherri" elkartearen kidea da.

Ekin emakumeen euskara elkartea 1995ean sortu zen. Haren xedea da, besteak beste, harrera eta bizikidetza proiektuak lantzea.

2003
EMAKUME TXOKOA

Emakume txokoaren irekiera. Herriko emakume taldeek emakumeentzako plan orokor bat egitea bultzatu eta proposatutakoan, udalarekin batera emakumeen kontseilua osatu zuten, eta proposatu zuten aukera berdintasunerako udal plan bat egitea. Horren ondorioz, udalak Emakume saila (Berdintasun saila) sortu zuen 1995ean, eta harrezkero, bere jardun berdintzailea garatu du etengabe.

Udalak Emakume txokoa ekipamendua zabaldu zuen 2003an Uarkape frontoiaren atzealdean. Euskal Herriko lehenetakoa izan zen. Harrezkero, ikastaroak, ahalduntzeko jarduerak, hitzaldiak, forumak, jardunaldiak eta hiruhileko programazioak antolatu dira, sexuen artean aukera berdintasuna sustatzeko.

XX. ETA XXI. MENDEAK
GATAZKA GARAIKIDEAK (1936KO GERRA ETA ETAREN SORRERA) / GERTUKO MEMORIA

1958an, frankismoan, ETA sortu zen, eta ideologiaz, nazio askapenerako mugimendutzat definitu zuen bere burua.

1968tik aurrera borroka armatuari ekin zion. Hasieran, gatazka garatu zen, batetik, taldearen inguruan sortutako mugimendu sozialean eta, bestetik, Espainiako zein Frantziako estatuen egituretan, baina, gero, gizarte osoaren arlo guztietara hedatu zen.

Gatazkari buruzko ikuspegiak askotarikoak izan dira, baina Euskal Herriaren eta Espainiaren gizarteak gogor kolpatu ditu: indarkeria, hilketak, estortsioak, bahiketak, manifestazioak, atxilotzeak, espetxeratzeak, torturak, sufrimendua… eragin ditu eta.

ETAk bukatutzat eman zuen bere jarduera armatua 2011n; 2017an armagabetu egin zen eta 2018ko maiatzean iragarri zuen behin betiko desegitea.

Gatazka horrek Arrasateko gizartean ere eragin handia izan du. Arrasateko Udala, 2016an, memoria eta bizikidetza lantzen hasi zen, ordezkaritza zuten alderdi guztiak ados jarrita.

Hasiera eman zion biktima guztien oroimen zein aitortza bideari, 1936-2018 aldian herrian pairaturiko indarkeriaren eta giza eskubideen urraketen memoria errekuperatzeko.